

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bego Ereñaga Onaindia

*Durango,
Bizkaia
(1927-2015)*

Aurkibidea



Biografia



1927an jaio zen Durangon, [Kixmi taberna](#) dagoen lekuan. Ama Arbatzegikoa zuen eta aita garaitarra. Bonbardaketan etxea apurtu zien eta herritik alde egin behar izan zuten: lurretan, Galdakaon, Bilbon, Alonsotegin eta Gibajan (Kantabria) egon ostean, Frantziara joan ziren. Bi urtez egon ziren bertan 1939ra arte, bertako gerra hasi arte; 500 euskaldun egon ziren elkarrekin Bordeletik 20 bat kilometrotara. Durangora bueltatzerakoan, [Madalenako](#) etxe batean jarri ziren bizitzen 1945 arte, jaiotetxea konpondu eta bertara itzuli baitziren orduan. Bere amak denda zabaldu zuen bertan. Umetan Santa Susanara joan zen eta hura zarratzerakoan, Ezkurdiko partikularrera joan zen Pepita Aizpuruarengana. Frantzian bizi zela pilotan jolasten hasi zen, eta herrira bueltatzerakoan erraketarekin hasi zen, lehenengo Abadiñora eta gero Eibarrera joaten zen entrenatzera. Sasoi hartako emakume asko bezala erraketista profesional legez hasi zen jokatzeko, eta 15 urte zituela Sabadellera joan zen kontratupean 9 hilabeterako; ibilbide laburra izan zuen ez baitzen gehiago bueltatu. Amaren dendan aritzen zen laguntzen eta 1984an, bere ama hil ostean, Kixmi taberna ireki zuen Begok. Gernika-Lumokoa zuen senarra eta 5 seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DUR-026

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Data:** 2010-03-31
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

DUR-064

- **Proiektua:** Durango 1936
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Durango 1936
- **Data:** 2011-07-05
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elkartea, Durango 1936
- **Emalea:** Elkartea, Durango 1936

Pasarteak

1. Durangotik ihesi

- **Erref:** DUR-026/004
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bonbardaketan 10 urte izan arren, oso ondo gogoratzen du dena. Etxea apurtu zieten. Frontera joana zen bere lehengusu baten etxera joan ziren lurretara. Handik bere amaren neba batengana joan ziren Galdakaora; Zornotzara heldu zirenean, bertako geltokian jakin zuten bezperan Gernika-Lumo erre zutela. Galdakaoko eta Bilboko bonbardaketetan egon ziren. Bilbotik Alonsotegira joan ziren eta handik Santanderrera eta Gibajara.

2. Bi urtez Frantzian errefuxiatu

- **Erref:** DUR-026/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Santanderren zeudela, Frantziara joateko eskaera egin zuten Eusko Jaurlaritzan. Bere aitak ezin zuen joan, 48 urte zituen eta kintan sartzen zen; baina, hala ere, itsasontzi batean sartu zen eta denak joan ziren Frantziara. 1939ra arte egon ziren Frantzian, bertako gerra hasi arte. Venezuelara alde egitea pentsatu arren, azkenean herrira bueltatu ziren.

3. Itzulera gogorra

- **Erref:** DUR-026/006
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:15:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Durangora bueltatu zirenean, ez zuten ezer eta txarto pasatu zuten. Madalenako etxe batera joan ziren bizitzera beraien etxea apurtuta zegoelako. Aurreko partea osorik zegoen eta bere amak orduan zabaldu zuen denda, estraperloa zela-eta egin zuten aurrera. Eskolara joateko ez zuten dirurik eta 13 urterekin josten ikasten hasi zen; oso gustura egon zen bertan, jostunarekin ikasi zuen igeri egiten errekan.

4. Frantziako bizimodua

- **Erref:** DUR-026/007
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Frantziarako bidaia luzea izan zen. Toki guztiak beteta zeudenez, bueltaka ibili ziren. Bordeletik 20 kilometrora, 500 euskaldun inguru egon ziren batera; eta, han, maistra eta abadea (Tolosakoa Anatasio Mokoroa) ere bazuten. Familia bakoitzak gela bat zuen. Maistrak euskaldunak ziren; gaztelaniaz hartzen zituzten eskolak, nahiz eta beti euskaraz egin berba. Asko izan arren, oso ondo konpontzen ziren. Acción Católicak eta Euskal Gobernuak ordaintzen zizkieten gastuak. Abadeak frantsesa irakasten zien.</p>

5. Frantziako arropak onak ziren

- **Erref:** DUR-026/009
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Frantzian zeudela, bere aita ondoko herri bateko taberna batean aritzen zen lanean, diru apur bat lortzeko. Bertakoak oso ondo portatu ziren, arropa asko eman zieten. Frantzian arropa ona zegoen eta hango jantziak Durangora ekarri zituen. Frantzian zeuden durangar guztiak, 2 familia, logela berean egon ziren.

6. Frantziatik Bilbora

- **Erref:** DUR-026/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:25:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Frantziatik bueltan, Hendaiako muga, zubia, oinez pasatu zuten. Bilbora joan behar izan zuten bueltatu zirela esateko. Bilbon durangar batzuk aurkitu zituzten eta haien Bakioko etxean egon ziren bi egunez, izara garbiekin lotan.

7. Gerra aurreko Ezkurdi

- **Erref:** DUR-026/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Gerra aurretik Ezkurdi jolasten zuten, gaur egun baino politagoa ei zen. Paseatzeko leku ederrak zituen. "Siglo XX" tabernak terraza handi zuen. Gaur egun banketxeak dauden tokian kafetegiak zeuden: Ezkurdi, La paz eta Alza.

8. Kixmi taberna

- **Erref:** DUR-026/019
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:33:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Kixmi tabernaren izena bere semeak aukeratu zuen euskal mitologiatik.</p>

Transkripzioa

- Zelan ba "Kixmi", nundik hori izena ba?
- Ba nire semie da, gustetan jako horrek izen ba Aitor-ta honen moduen, ta Kixmi da, Aitor zan "el padre de los vascos", ta Kixmi ei zan granujatxu bat. Bai, "de la mitologia vasca", "de la mitologia vasca". Ta txarto deku ipinitte baia da "Kix" ta gero "Mi" baia bueno, ez gendun jakin hainbeste ta "Kixmi" segiduen dau ipiñitte, baia gero etor jaten niri egun baten giputz bat ta giputzek gehidxau dakidxe gu baiño, ta harek esan osten: "¡teneis mal escrito el "Kixmi" e!".
- "¿Si?, ¿por qué?".
- "Porque es así: es "Kix" "Mi".
- "Bueno es igual". "Ya entendéis".
- "Si, ya entendemos, pero está mal".
- Ta esan notsan nire semieri: "Josu, Kixmi ez da holan e! da Kix Mi. Ta "bueno apurtzen badan ipiñiko dogu, ta ostantzien dauela".

9. Bonbardaketa

- **Erref:** DUR-026/023
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:37:52. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bonbardaketan oso txarto pasatu zuen, beldur asko pasatu zuen. Gosaltzen zegoela hasi ziren abioiak etortzen. Etxe atzeko kale txiki batean zakuak jarri eta han babestu ziren. Bere aita lanetik bueltatu zenean beste alabaren bila joan zen suntsitutako elizara, Andra Mariara. Baina kanpaiak entzuterakoan, bere ahizpa elizara joan beharrean La paz kafetegiko satora joan zen, eta horrek salbatu zuen.

10. Elizak erreta

- **Erref:** DUR-026/025
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Ezkurdiko eskola partikularretara joan zen umetan, Santa Susanan eta jesuitetan batailoiak zeuden-eta. Andra Mariko elizan intendentzia militarra egon zen. Bere ustez, horregatik bonbardatu zituzten elizak. Bonbardaketa eguna Asteazken Santu Eguna izan zen. Elizpean azoka zegoen eta erosketak egiten zebilen jende asko hil zen.</p>

11. Pepita Aizpuruaren eskola partikularrera

- **Erref:** DUR-026/026
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Ezkurdiko eskola partikularretara joan zen umetan, Pepita Aizpuruaren etxera. Don Eusebio abadearen arreba zen. Bere neba maristetara joan zen. Guraso biak lan egiten zutenez diru aldetik ondo zebiltzan. Bere ahizpak piano ikasketak egin zituen. Pepita Aizpuruarengana Santa Susana zarratu zutenean hasi zen, bere ahizpak Santa Susanan ikasi zuen.

12. Raketista

- **Erref:** DUR-026/030

- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:49:07. **Bukatu:** 00:52:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Raketistak

Laburpena:

<p>15 urterekin bere nebarekin hasi zen pilotan jolasten, eta bere amak eskuz ez aritzeko erraketa erosi zion eta Abadiñora joaten ziren. Beste neska batek esan zion Eibarrera joaten zela ikastera eta Bego ere horrela hasi zen. Enpresari batek Sabadellera joateko kontratatatu zituen, baina bederatzi hilabetera etxera bueltatu zen.</p>

Transkripzioa

- Ni beti izen naz "marichico", nire aitzie beti zan señorittie, ta ni beti "marichico". Ta han Frantzidxen euki gendun horma bat apurtute baiña ba olgetako moduen, ta nire nebiek beti ez baban eukitzen lagunik iñor niri ni eruten eban ta pelotaka pelotaka jokatzen gendun han. Ta gero etorri nitzenien ba amak eskuz ez ibiltzeko erosi esten raketa bat, ta juten giñen Abadiñora, ta ta gero neska bat ez naban ezagutzen. Ezagutzen naban nik bistaz bakarrik ta esan eusten bera Eibarrera juten zala ikesten, harek euki eban aitte ferrobidiaridxe ta karo trena trena be debalde ta juten zala Eibarrera ikesten eta esan nontsen amari ta esan osten amak: "ba holan ibilli barik hobeto dozu zu be juten bazara beragaz Eibarrera". Ta halan juten giñien zazpi terdidxetako trena hartu Durungon ta juten giñien. Ta ba, noz hasiko nitzen? ba oktubrien-edo hasiko nitzen ta oin oin martidxen etor zan enpresariidxo bat ta kontratau ein oskun Sabadellera. Ta ba juen giñen bidxok.

- Hori zemat urtegaz?

- Hamabost urtegaz. Ta nik esaten notsen gero etorri nitzenien, esaten notsen amari nik: "baia ama, zelan zelan itzi zosten hamabost urtegaz jun Sabadellera iño?" ta, ze niri gero nire alabiek esan baosten niri hamabost urtegaz doiela holan, esango notsen, bueno bueno bueno! plastazo bat emongo notsen. Ta karo nire amak esan osten: "nik ez neban jakin zure porbenidxe izengo bada". Gure amak euki aban, euki aban zentzun asko euki aban "ta zelan kenduko notsun zure porbenidxe izeten bada?". Ta karo, jun nintzen ointxe, hamabost urte eindde, hamaikan hamabost urte ein eta hamabidxen edo hamahiruen ez dakitz noiz izen zan. Ta gero Gabonetarako ba etorteko etorteko etxera, etorteko etxera ta ba ya ikusi naben han zer dauen ta pentsau naben amagaz hobeto bizi nazela ta ez nintzen jun atzera, geldittu ein nitzen.

- A ez? orduen hille gitxi ein zenduzen.

- Beratzi hillabete.

- Eta, ez jatzun damutu ez bueltetie?

- Ez, ez, ez. Ez, ze ademas kasualitatez, ya nire nobidxe be egon zan "división azul"en, bueno nobidxe, eskribiduten osten, baia, ya egon zan hamen ya, ta ya.

- Ta kontratuegaz joan ziñela esan dozu, ta zelako kontratuek izeten zien?

- Ba kontratue ba ez naz gogoratzen zemat, baiña apurtu ein eban kontratue enpresa, oso enpresariidxo majue zan, bai bai, oso majue. Esan notsen zelan ez natorrela gehidxau ta "ba edarto" esan osten ez badot gure.

13. 500 pezeta hilean raketista legez

- **Erref:** DUR-026/031
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:52:52. **Bukatu:** 00:56:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Raketistak

Laburpena:

<p>Raketista zela 500 pezeta kobratzen zituen hilero eta lortutako puntu bakoitzagatik 3 pezeta. Begok dio bera ez zela jokalaria ona, azkenerako ez zuen askorik entrenatzen. Norberak bere kabuz entrenatzen zuen. Pilotak Eibarren bertan ematen zizkieten entrenatzerakoan, teniseko piloten modukoak ziren.</p>

Transkripzioa

- Jornala-edo euki zendun?
- Bai, orduen sasoien ondo, bostehun pezeta hilero. Bai, ta gero izeten zan ez dakitz zelan deuken izena, jokatzan gendun "puntos" ta "cada punto" hiru hiru pezeta ta "aprobada una cincuenta" ta eitten bazendun ba igo eitten ban.
- Eta, ona ziñen?
- Ez, ni lelengotan ba bakizu, lelengotan bazoiez ya afiziñuegaz ta frontoara juten giñien entrenetan baia gero jun giñen gizon batek erun oskun, beren etxera erun oskun bidxori ze ni argaldu ein nitzen asko ta ba eru oskun etxera, ta gero han etxien ba ni ensegida hasi nitzen loditzen-ta, ta gero egon zan euki aban alaba bat nire edadekue ta jokatzan gendun ping-pongera etxien, ta ni etxien egoten nitzen; bestie, nire lagune joaten zan frontora goizetan entrenetan baia ni ez nintzen juten, ni etxien gelditzen nintzen, ni etxien egoten nitzen. Gustetan jatan leidu asko, ta leiten berandua arte egoten nitzen eta gero ba gero ohien, ohien. Ta itzi ein naban juten entrenetan ta ez, izen nitzen "del montón".
- Ta zelako entrenamentuek izeten zien?
- Nobera bakarrik.
- Nobera. Baia egunero ordu pare bat edo zelan izeten zan?
- Zuk gure dozun beste, goizie libre euki gendun.
- Ta arratsaldie?
- Bostetan, bost terdidxetan egoten giñen bertan, ta amaittu arte, amaitzen zan ba hamaiketan edo gehidxau, azkeneko partidue egoten zanien.
- Ta esan dozu raketiegaz eta frontoien ibiltzen ziñiela, baia pelotie zelakoa zan?
- Ba pelotie teniseko modukue baiña frontora, tenis moduen holan ez, frontora, "tenis de frontón".
- Ta harek pelotak Durengon nun erosten zenduzen?
- Ez gendun erosten guk, Eibarren. Han pagau ein biher izeten zan-ta, han emoten oskuen pelotie.
- Ta Eibarren nora joaten ziñen Astelenara frontoire?
- Astero, astero.
- Baiña ze frontoira joaten ziñen?
- Astelenara. Ta erakusten oskune frontoien etorten zan gugaz, etorri zan gugaz Sabadellera.

14. Neskak pilotan aritzea txarto ikusita

- **Erref:** DUR-026/035
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:58:11. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Raketistak

Laburpena:

Neskak pilotan aritzea txarto ikusita zegoen Euskal Herrian. Hemendik kanpora, ostera, ondo ikusita zegoen. Durangon pilotan hasiz gero, harrika egingo zietela dio.

Transkripzioa

- Ondo ikusten zan neskak pelotan ibiltzie?
- Ez, ez. Hamen klaro niri esan eusten: "¿y cómo no jugabais aquí a la pelota?" [...] esan eusten niri Jabik. Baia esan notsen: "mira Jabi, si a nosotras nos ven jugando a la pelota en el Astelena o en Durango los hombres nos echan a pedradas". Bai, bai, bai. Hamen, hamen, hamen gizonak die "muy machistas", euskaldunek diez "muy machistas".
- Ta Sabadellen hobeto hartzen otsuen?
- Bai, Sabadellen ederto ta Bartzelonan be bai, ta danien, Madrillen ta danien.
- Hemen ez.
- Hemen pentsau be ez.
- Ta zuekaz apostuek eta be eitten biezana.
- Bai, bai, bai. Bardin-bardin.
- Jentie joaten zan apostetan-eta zuen alde-eta?
- Bai, bai, bai. Ba apostue eingo bienak gizonak izengo zien ba!
- Klaro!
- Orduen, joango zien frontoietara gizonak.
- Baia bai gizonak etorten zien bai.
- Baia Durengon diñozu ezetz.
- Durungon, Durungon atarako oskuen harrike, harrike, seguru.

15. "A la bandera" olgetan; pilotak

- **Erref:** DUR-026/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:03:36. **Bukatu:** 01:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Pingitos" ezizenez deitzen zioten arineketan oso azkarra zelako. Bere ahizpa bera baino sei urte zaharragoa zen eta ez zuen nahi izaten berekin ibiltzerik, baina azkarra zenez jolasteko bai nahi izaten zuen. "A la bandera" jokora zelan jolasten zuten azaltzen du. Frantzian bere nebarekin eta beste mutil askorekin pilotan aritzen zen. Beraiek egindako pilotak izaten zituzten.</p>

16. Lehen jaunartzea

- **Erref:** DUR-026/042
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:07:50. **Bukatu:** 01:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Dotrina eskolan ikasi zuen mojekin. 6 urterekin egin zuen lehen jaunartzea. Lehen jaunartzeko eguna tristea izan zen. Meza ostean arropa kendu behar izan zuen Ereñoko lehengusina bati uzteko eta arratsaldeko mezara bera uniformez jantzita joan zen. 9 urterekin "renovación" egiten zen, baina gerra hasi zenez ez zuen egin. Jatekoak-eta ez ziren egiten, pastelak baino ez zituzten jan etxean.

17. Errepublika garaia: Centro Republicanoa, Batzokia, Karlistena...

- **Erref:** DUR-064/001
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra aurrea

Laburpena:

18. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak

- **Erref:** DUR-064/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

19. 1934ko urriko greba

- **Erref:** DUR-064/003
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

20. Zelan jakin zuen gerra hasi zala

- **Erref:** DUR-064/004

- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

21. Durangotik Santanderrera

- **Erref:** DUR-064/005
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

22. Frantziara

- **Erref:** DUR-064/006
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

23. II. Mundu Gerra hasi eta Durangora itzulera

- **Erref:** DUR-064/007
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

24. Durangon ez etxe ez diru

- **Erref:** DUR-064/008
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

25. Frankistenganako amorrua

- **Erref:** DUR-064/009
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Ereñaga Onaindia, Bego | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com